

JELAZKO ITSASO IZKUTATUA

José M^a Arbelaiz (Baserri)


BEHIN batean Europako Iparraldean (Laponian) antzeko bidai bat egin ondoren, lerak, eskiak, hotza, bakardadean hitz egiten hari ginen Patta eta biok. Eta zergatik ez beste antzeko zerbait? Non? Patagonian, "Hielo Continental Sur" deitzen den izotz mutur haundi horretan, ez da oso ezaguna, baina aukera polita izango litzake ezagutzeko eta sentitzeko. Europako Ipar aldetik Ameriketako Hego aldera.

Ezpedizio guztietan bezala, lekua aukeratuta zegoen, orain hasten zan lan gogorra; prestakuntza, partaideak eta bidaia aurrera eramateko laguntza. Azkenean Fidel eta Mikelekin osatzen dugu laukotea, kopuru ona, bi bikote. Joan behar dugun lekuari buruz, gauza gehiegi ez dugu lortu, hori bai, lortutakoarekin ba daukagu aurkezpen txiki bat; Mundu osoko lurralde ez ezagunetako bat dela. Patagonia osoan bezala ehun km./ordu haize boladak, eguraldi aldakorra eta hotza direla jaun eta jabe; hori dana eta bertako hainbat mendi ezagun (Fritz Roy, Cerro Torre, Poincenot) gertutik jarraitzeko aukera, bertaratzeko gogoarekin. Guk aukeratutako garaia, Urria, ez zan onena, bertan ibilitako jendearen usteetan baina ala eta gustuz bertako udaberriaren bila abiatu ginen irailaren 25 ean.

Azken erosketak egin

Bueno Aires etik lehen bidalitako kargoa edo tresna multzo handiak jaso eta Rio Gallegos era (2.300 km.) Hegoalderuntz. Bertan azken erosketak egin eta handik El Calafate ra. Hemendik El Chaltel dugu azken abiapuntua. Herrixka honetara iristeko autobusa hartu beharra dago (300 km.). Azkenean El Chaltel en gaude. Urriak 1. Honera inguratzea nahiko nekagarria da. Atzean Euskal Herriko Hego haize goxoa eta Udazkena, eta aurrean Patagoniako haize bortitza eta hotza.

Bertako jendeak oso ondo hartu gaitu baina gure asmoak aurkeztean zalantzan jartzen dute, garai honetan hemen ez bait dago beste ezpediziorik ez eta turistarik, bertako adituek diote, jelara



▲
Arriba a la izquierda.
Euskal Espedizioa (Hielo Continental Sur).
Al fondo el "Circo de los Altares". De derecha a izquierda. Cerro Adela 2960m, Cerro Torre 3128 m, Torre Egger (R. Standhar - A. Biffida - Fritz Roy - C. Rincón)
Arriba.
Porteando al Paso Marconi, con seracs del cordon Marconi al fondo 2480 m
A la izquierda.
Hielo Continental Sur
▼

sartzen dan jendea normalki beste urte garaian inguratzen direla, hain zuzen ere, hemengo uda hasieran edo negu inguruan, baina orain...

Gutaz ez zuten apustu gehiegi egiten dena den jela inguru honetara oso jende gutxi inguratzen da, barruraino batez ere. Gu ala ere lanean jarraitzeko asmoa daukagu, horrela dana hartu eta "Electrico" ibaian zehar zama biskarrean gora eta behera porteoak eginaz, ia 1.000 m. desnibela daukagu "Marconi" lepora iritsi arte. Hango basoak, errekek, biderik gabeko bailarak, haizea, elurra eta 70 kiloko zama.

Ohinarrizko kanpoa bezala "Los Troncos" deitzen dan lekua hartu dugu eta "Fritz Roy", "Gillaument" orratzen lpar hormak ikusteko aukera ederra.

Ia 8 egun daramgu tresnak igorzen, bidea hainbat aldiz egin dugu gora eta behera, zenbait egunetan atsedena beharrezkoa da; hau da hau haizea eta ekaitza!

Azkenean "Marconi" glasiarra atzean hutzi eta izen bereko lepo aldera goaz, azken gauean elurte handi bat bota zuen eta urratsa egitea nahiko neketsua da, baina azkenean gure aurrean daukagu jelazko zabaldua, 1.500 m. altueran gaude eta eskubira Gorra Blanca mendia (2.860 m.) urrunago, Iparraldera "Lautaro" katea (3.380 m.) eta beste hainbeste gailur, batzuk izenik gabe eta igo gabeak. Hau da gure atea. Zama guztia bizkarretik, leratara pasa, arnesak jantzi eta tira aurrera, eguraldia ere azken egun txarren ondoren badirudi ongi etorria eman nahi digula. Ezkertzen da. Gelan zehar ez dago igoera handirik, horregatik gure lerak eta eskiak oso ondo irristatzen dira.

Orain Iparretik Hegoaldera goaz, paren "Moreno" katea dauka. Horrelako eguraldiarekin bertara inguratzea gogoia ematen du baina guk geureari ekin behar diogu. Eguraldia zoragarria jarraitzen du, bero gehiegi ez, haizea ez da asko nabaritzen, gustora goaz gure zeharkaldian. Egunean zehar norabide zehazteko GPS a edo Satellite bitartez dijoan aparagailua erabiltzen dugu nahiz eta lpar orratzekin ere nahikoa izan zenbaitetan. Egunean zehar 20 bat km. eginaz atzean uzten hasi gara "Marconi" eta beste kate batzuk agertzen dira "Aldaretako zirkoa" adibidez. Cerro Torre bere izotz ontoarekin, Egger, Standhardt, Bifida orratzak beste hainbatetan artean, oso leku ederra, zerbaitengatik izen hori.

Guk ere parean egingo dugu gaua eta egunero bezala kanpamendua ekin diogu. Lehen lana izotz horma altzatzea izango da, haizetik babesteko, gero dendak ipini, lerak uztu, ura urtu, afaria egin eta eguzkiaren azken ispiak "Torre" gailurrean daudela lo zakura.

"Upsala" glasiarra, gure helburua

Goizetan antzeko lana, gauean termometroa 20 zero azpi bitartean jeisten da eta hori haize handirik gabe. Berririo dena jaso eta aurrera eguraldi bolada aprobetxatu beharra dago. Eguzkia eta haizea inguru honetan (Osono zuloan parean gaude) oso nabaria da gure aurpegitan, ez dago krema edo babezarik. Telazko kaputxak egin eta dana ez tali beharrean gaude. Nekea nabaritzen ari da dagoeneko, egun batzuk daramagu jedanik izotz gainea. Halako bakardadean ilargi beteak argitazun ederra eskeintzen digu. Gero eta gerturago dugu "Upsala" glasiarra, gure helburua. Eguraldia aldatzen dago eta gogor astintzen ditu haizeak gure dendak eta inguruak. Zalantzak ditugu glaziarrean zer nolako irteera izango dugun. Era bat zartatzen hasten da, izugarria. Guk gure lerekin alden guztia jarraitu nahi dugu baina ezinezkoa da, dena bizkarrean hartzea erabakitzen dugu, kranpoiak jantzi eta ahal den moduan gaingiditza. Azkenean arkaiz gainean gaude isiltasuna nabarmena da bakoitza bere buruaren barruan, baina ez dago denbora galtzetik ekaitza gero eta gogorrago dago eta bide luzea galditzen zaigu Cristina Estantziara inguratzeko. Berririo gure zama astunak bizkarrean hartu eta bidea jarraitu behar dugu. Izogarrizko lakuak sortu dira azken urteetan. Lurraren berotzea dela eta glaziarrek asko jeitsi dira, azken 30 urtetan zenbait tokitan 200 m. jeitsi dira lakuak, horregatik mapetan ez zaizkigu ageri eta era bat despistatzen gaitu.

Lehenengo gaua izotzetik kanpo arkaitz handi baten azpian igaro dugu, gauak hartu gaitu eta "Vivac" bat antolatu beharrean

▲
A derecha.
Montando uno de
los campamentos.
Muro de hielo
▼



ARGAZKIAK: J. ARBELAIZ (BASERRI)

gaude, izugarrizko haize boladekin. Goizean berririo zama zati bat hartu eta aurrera urez blai. Ondoko egunetan gainekeo tresnak bertara inguratu eta gure azken agurra, laino artean, jela Patagonikori. Errekak tirolinaz zeharkatu eta kondorrak gure gainean ongi etorria emanez bailara beheruntz zartzen gara. Loreak eta zuhaitzak agertzen hasten dira. Azkenean Urriak 23 ean "Cristinan" gaude eta bertan Tito nagusiak oso jarrera ona egin gaitu, berak sukaldean prestatutako afaria jan eta gero, bertako historioak kontatzen hasi zaigu mate bero batzuen artean, benetan leku hatzegina. Izugarrizko baserria, garai batean 15.000 mila ardi eta behorrez osatua. Gure kezkek bukatuak zeudela uzte genuen baina bertan egon behar zuen irratia izorrotua zegoen.

Gure asmoa irriti honekin laguntza eskatzea zen. Irteera bakarra, txaluparen bat inguratzea baina Titon hitzetan ez zan ziur noiz iritsiko zen, bitartean inguruak ezagutu eta hainbar historio entzun bertako puma eta behi basatien buruz. Bost egun beranduago txalupa urbiltzen da eta kapitainak errezele handiz hartzen gaitu. Azkenean gure negoziaketa bide onetik joan eta gero, tenpanoz beteriko laku Argentinoren zehar "El Calafate" ra jo dugu. Bertan arkume eta nahiko ardo zai dugula.

Kanpoan Elurra eta haizea.

Agur eta laister arte, Patagonia. □

FITXA TEKNIKOIA

- **Zeharkaldia**
Chaltel, Marconi, Cristina iraila. Urria 1997
- **Partaideak**
Fidel Olaizola (Azpeitia), José M^a. Arbelaz "Baserrri" (Oiarzun), Adri Florentino "Patta" (Orereta) eta Mikel Troitiño (Zarautz).
- **Laguntzaileak**
Oscar, Ana, Ruben, Ricardo eta Tito (Chalteneko lagunak). Gallina Blanca - Isdin - Sherpa kirolak eta Kamiseta erosleei. Danok eskerrik beroenak.
- **Proiezio kontaktoa:** Tl. 943 516192

R E S U M E N

HIELO PATAGÓNICO SUR

El Hielo Continental Sur es el gran glaciar que ocupa buena parte de la punta meridional de Argentina y Chile, extendiéndose a lo largo de 400 km y con una anchura de 50 a 80 km., de donde descienden cerca de cincuenta glaciares, que ocupan una superficie de 20.000 km². El clima es muy severo, con vientos que alcanzan los 100-150 km/h

La aventura consistió en efectuar un complicado recorrido siguiendo la ruta El Chaltén-Paso Marconi-Estancia Cristina-El Lafafate, contemplando hermosos picos como el Fitz Roy y el Cerro Torre, teniendo que utilizar esquís, trineos para transportar el peso, crampones y montar alguna tirolina para cruzar los ríos.